

Australiak lau urteko lanaren saria

Taldeko Tim Horan aukeratu dute Mundialeko jokalaririk onena, merezimendu osoz

Koldo Alduntzin / Donostia

MUNDUKO txapelketa bat amaitzen denean, derrigorrezkoa da horretan ikusitako gauza on eta txarrak komentatzea. Bistan da iritzi zehatz bat emateko partida guztiak ikusi behar direla, eta hori oso zaila da. Halere, gauzarik nabarmenenak aipatzeko moduan gaude.

Jokalariei dagokienez, sarritan aipatu dugu Mundialak iraun duen 36 egunetan Australiako Tim Horan izugarri ari zela jokatzeko. Azkenean lortu du saririk onena, Mundialeko onena izatea, hala erabaki baitu horretarako ardura zuen 12 kideko batzordeak. Galesko Gareth Edwards ian da buru, eta hau adierazi du: «Oso pozik gaude Horanek eskuratu duelako saria». Gogoia, indarra, abiadura eta esperientzia dira haren dohaiak.

Bestetik, hego hemisferio-koen nagusitasuna izango zela espero zen, eta soilik Zeelanda Berriak egin du huts. Zaila da All Blacks-en akatsa zein izan den asmatzea, baina Frantziaren eta Hego Afrikaren kontra nekatuta nabaritu genituen. Australiaren lorpena prestaketan luze eta baten ondorioa izan da. 1995eko Mundialean kanporatua izan zen final-laurdenean, eta hark min handia egin zion. Orain dela bi urte areagotu egin zuten prestaketa, baina 1991n aritu ziren jokariengan oinarrituta: Eales eta Horan.

Jokoari dagokionez, berriz, eskasetan nabaritu ditugu teknika berriak. Jaurtiketa egiterakoan hor ibili dira jokalariek atzetik aurrera, kokapen egokia lortzearren.

Miarritze taldeko Bernat-Salles oso ondo

Paueko Bernat-Sallesek (Miarritze) kolokan izan zuen parte-hartzea Mundialean, baina deialdian sartu zuten, eta ez dute damu izango. Halere, lehen partida ez zuen jokatu Kanadaren kontra, baina gainerako bostetan ohikoa izan da. Jokaldi amaitzaile aparta dela erakutsi du, lau entsegu eginda. Horrez gain, hainbat jokalditan



Tim Horan, Galesen kontrako partidan, Charvis hirugarren lerroaren defentsa indarrez gainditu nahian.

Munduko Kopa zenbakitan

Jokalariek

● ENTSEGU GEHIEN

Lomu (Zeelanda Berria)	8
Wilson (Zeelanda Berria)	6
Wood (Irlanda)	4
Luger (Irlanda)	4
Bernat-Salles (Fra)	4

● PUNTUEGILERIK ONENAK

Quesada (Argentina)	102 (31 zk., 3 tr., dr. 1)
Burke (Australia)	101 (2 en., 19 zk., 17 tr.)
Debeer (Zeelanda Berria)	97 (15 zk., 17 tr., 6 dr.)

● ENTSEGIK GOIZTIARRENA

Tim Horan (Australia)	92" (Errumaniaren aurka)
-----------------------	--------------------------

● ENTSEGIK BERANTTIARRENA

Finegan (Australia)	92' (finalean)
---------------------	----------------

Taldeak

● PUNTU GEHIEN EGIN

Zeelanda Berria	255 (6 partida)
Inglaterra	250 (5 partida)
Hego Afrika	219 (6 partida)

● EMAITZARIK ALDERATSUENA

Zeelanda Berria- Italia	101-3
-------------------------	-------

● PUNTU GUTXIEN HARTU

Australia	73 (6 partida)
Hego Afrika	91 (6 partida)
Zeelanda Berria	111 (6 partida)

● PUNTU GEHIEN PARTIDA BATEAN

Inglaterra-Tonga (101-10)	111
---------------------------	-----

Hamabostekorik onena

1-Rogers (Gal)	2-Wood (Irl)	3-Reggiardo (Arg)
4-Benazzi (Fra)	5-Eales (Aus)	
6-Erasmus (H.A.)	8-Kefu (Aus)	7-Magne (Fra)
9-Gregan (Aus)	10-Bachop (Samoa)	
11-Lomu (Z.B.)	12-Horan (Aus)	13-Fleck (H.A.)
	14-Tune (Aus)	
	15-Burke (Aus)	

Aipagarriak: 1-Meeuws (Z.B.), 2-Ibañez (Fra), Tour (Arg); 4-Maxwell (Z.B.), 5-Johnson (Ing.); 6-Greening (Ing); 7-Dallaglio (Ing); 8-Kronfeld (Z.B.); 9- Van den Westhuizen (H.A.), Lamaison (Fra); 11-Dominici (Fra), 12-Jeremia (Z.B.), 13-Herbert (Aus), 14-Bernat-Salles (Fra), 15-Wilson (Z. B.)

● AURRENEKO LAUREN BATAZ BESTEKO EMAITZAK

1 Australia	36-12
2 Frantzia	36-23
3 Hego Afrika	44-15
4 Zeelanda Berria	42-18

Multzo gutxiago proposatzen dute berriro 2003 urterako

Mundialean 20 taldek jardun dute, bost multzotan banatuta, baina ez dirudi horrela izango denik 2003 urtekoan. Sailkapen fasea jokatu ondorengo kanporaketa saioa ez da konponbide egokia izan. Horregatik, hogeitasei taldeek lau taldetan jardungo dute 2003an.

Lomuk Ingalaterrako Bristol taldean joka lezake

Zeelanda Berriko Lomuri ostegunean amaitu zitzaion kontratua hango Federazioarekin. Ingalaterrako *Mail on Sunday* egunkariak adierazi du Bristol ari dela hurrengo bi urteotan, 279.000.000 pezeta jasota (11,16 milioi libera). Zeelanda Berriko hedabideek, ordea, hego hemisferioan geratuko dela diote.

Australiako Burke 509 puntu egin ditu 44 partidatan

Mark Burke australiarra bigarren puntugilerik onena izan da Mundialean. Han lortutako puntuekin 509 egin ditu dagoeneko nazioarteko 44 partidatan. Burke lesio gogorra izan zuen 1998an Hiru Nazioetako Australia-Zeelanda Berria (19-14) partidatan, eta 10 hilabetez egon zen jokatu gabe. Joan den ekainean itzuli zen.

Fijiko Smith Edinburgoko Reiversek fitxatu du

Azaroaren 12an amaituko da Europako Txapelketan aritzeko jokalarien zerrendak emateko epea. Horregatik, Edinburgoko Reivers-ek fitxatu duen Smith Fijikoaren paperak azkar egin nahi ditu. Smith Zeelanda Berriko Waikato ari da, eta talde horrek onartu behar du fitxaketa.

erne egon da besteei laguntza emateko. Oso motibatuta atzeman dugu, eta biziki ospatu ditu entsegu guztiak.

Berez nahiko espresiboa da Pauekoa. Haren dohaiak

onenak arintasuna eta saihesteko trebezia dira. Defentsan ere neurria eman du, oso sendoa ez bada ere (1,80 metro eta 80 kilo). Hitz batean laburtuta, erbiaren

parekoa da. Miarritzerekin berehala jokatzeko hastekoari buruz: «Entrenatzaileek egoki ikusten badute lehenbait lehen hastea, haiek esandakoa egingo dut», zioen.